``Barrez lehertzen naiz penaz hiltzen naiz´´

Txomin Badiola

2021eko martxoak 5 - maiatzak 7

CarrerasMugica

—Zure erakusketak… badu izenbururik?
—Bai, noski!
—Zergatik noski?
—Beti izan dutelako.
—Eta honena, zein da?
—*Barrez lehertzen naiz. Penaz hiltzen naiz.*
—(…)
—(…)
—Ados.
—Ados… zer! Ez zaizu gustatzen.
—Ez dakit… zure izenburuak, normalean…
—(…)
—Arraroa da.
—Garaiak arraroak badira, lanerako baldintzak arraroak badira, edozein gauza egiteko egoera arraroa bada, ez dakit zergatik ez den ba izenburua arraroa izango.
—Ez da arraroa izatea bakarrik, zurekin bat ez datorrela dirudi.
—Beraz ez dator bat nirekin, eta zer da nirekin bat datorrena?
—Zerbait serioagoa, sarkorragoa.
—Hori da bururatu zaidan gauzarik serio eta sarkorrena.
—Bada pixka bat… *fuck you!*
—Baliteke, baina izorratua ni nintzateke batez ere.
—Zergatik diozu hori?
—Leku honetan bertan egin nuen aurreko erakusketarako idatzi nuen, erakusketa bat egiten dudan bakoitzean azkena dela pentsatzen dudala.
—Beldurra ematen didazu horrela hitz egiten duzunean, nahiz eta neurri batean posea izan. Zure hitz egiteko modu bat dela pentsatu nahi dut.
—Gertatzeko puntuan egon da.
—Zer?
—Azkena izatea. Haien arteko ia bost urteetan ez dut ezer egin.
—Hori ez da egia.
—Ezer materialik, esan nahi dut.
—Baina azkenean ez da gertatu.
—Duela sei hilabete konbentzituta nengoen bukatu zela, eta ez zen sentimendu desatsegina.
—Badiotsut beldurra ematen didazula…
—Beldurra? Gauzak egiteko modu asko daude, eta egiteko gauza ezberdin asko. Beldurra ematen didatenak artista bati artistatzat hartua izateko ezartzen zaizkion errutina konbentzionalak dira.
—Eta zer zerikusi du guzti honek izenburuarekin?
—Ez al da begien bistakoa?
—Ez, esaidazu zergatik den.
—Izan ere, niretzat gutxienez, gaurkotasunak, bai artearenak eta baita bizitzarenak ere, barrera eta negarrera eramaten nau aldi berean.
—Bale, segi.
—Hausnarketa ezinezko baten ondorengo histeria moduko bat da.
—Baina horrek geldi utz zintzake, eta egin duzun lan multzo baten erakusketaren izenburuaz ari gara hemen.
—Badakit, kontraesankorra dirudi.
—Nolabait, produktiboa izan da.
—Histeria lanean jarri dudala uste dut. Gogoa dagoeneko entzun ezin bada, gorputzari entzun beharko zaio.
—Horrek nola funtzionatzen du?
—Pentsatu gabe, eramaten utzita.
—(…)
—Nondik eta nora ez dakizula eramaten utzita.
—Nork eramanda? Zergatik?
—Martxan jartzea nahikoa den zerbaitek eramanda, gero konbultsioaren kargu eginez.
—Kasu honetan…
—Kasu honetan askoz lehenagoko irudiak ziren zerbait hori, bere momentuan betetzera heldu ez ziren norantza bat sumatzen zutenak…
—(…)
—…horri bide emango zion formarik inoiz topatu ez zelako.
—Orain arte. Eta, zer da bidearen amaieran topatu duzuna?
—Etortzeko dagoenaren mamuak ezin dira *vanitas* baizik izan...
—Itxaron…
—…azken buruan denek badakigu zein den geure paturik ziurrena.
—Beldurra ematen didazu.

Bederatzi eskultura dira, eta batzuek hala ez diruditen arren, haietako bi hainbat unitate autonomok osatuak dira. Erakusketari izenburua ematen diona bost elementuz osatua dago, eta bost urte zaharragoa den beste batetik sortu ziren elementu horiek. Haietako bakoitza independentea da, elkarrekin poema moduko bat sortzen duten arren: BARREZ HILTZEN NAIZ PENAZ LEHERTZEN NAIZ LEHERTZEN NAIZ HILTZEN NAIZ BARREZ LEHERTZEN NAIZ PENAZ HILTZEN NAIZ. *Ardor y manía* (*Grina eta mania*) aurrekoen bertsio bolumetrikoa, eta duela hamaika urteko pieza bateko elementuen berrantolaketa da aldi berean. *Hamlet*-eko lurperatzailearen monologoan, erreinuko bufoiaren aztarnak topatzen ditu printzeak, eta atsekabetu egiten da ("Alas poor Yorick!"), bizipoza, txistea eta ziria ordezkatzen zituen hura hezurdura zikin eta gaitzesgarri bihurtuta egoteaz. *Alas poor Andre*-k (*Ai Andre gizajoa*) bi albiste darabiltza —hemen kartel bihurtuak (duela hamaika urte beste proiektu baterako sortuak), eta erortzen ari den arkitektura baten bidez erdizka ikusiak— eta haietan bi pertsonak (haietako bat Andre da) euren hezurdura oinordetzan uzten diete antzoki banari, haiekin bizitzaren harrokeriaren inguruko monologo ospetsua interpreta dadin. *Bastardos blancos* (*Sasikume zuriak*) lau pieza dira, aurreko erakusketako beste lau pieza oroitarazten dituztenak, baina hazten ari den iheskortasun puntu batean. *Monumento* (*Monumentua*) eta *De los udam* geroaldi inprobable baterako kontramonumentuak dira. *Flujos, mutaciones, filiaciones* (*Fluxuak, mutazioak, filiazioak*) aurreko erakusketarako sarbidea lortu ez zuen pieza bat da, honen zain zegoelako, hau baitu egon beharreko lekua. Winckelmann eta Lessing bi ilustratu izan ziren, artea historiaren inkontzientea izan daitekeela jakin zutenak. Malevichek barrutik hautsitako lasaitasunezko ikono bat sortu zuen, hasiera eta amaiera, alfa eta omega. *No me tendrás por inocente* (*Ez nauzu ba inozentetzat hartuko*) lanean, irudi hauek (duela hamabi urte sortuak) zorigaiztoko artefaktu baten bidez artikulatzen dira nahi gabe. Azkenik, *Esos desechos* (*Hondakin horiek*) horixe da literalki, garai ezberdinetako hondakin multzo bat, izateko euren bokazioan lanean jarriak.

Txomin Badiola Bilbon bizi da, eta bertan lan egiten du. Banakako erakusketak egin ditu honakook bezalako museoetan: Velázquez Jauregia (MNCARS, Madril), Pepe Espaliú Zentroa (Sevilla), MUSAC (León), Saint Etienne Metropole Arte Museoa (Saint-Etienne) eta MACBA (Bartzelona), besteak beste. Bere azken lana Malformalismo *izan da, Caniche-k argitaratutako liburu bat.*

ALAS POOR ANDRE, 2010-20. Egur eta altzairuzko eraikuntza, zatika pintatua eta inprimatua. 240 x 250 x 250 cm.

Ikuspegi orokorra

NO ME TENDRÁS POR INOCENTE, 2016-20.
Egur eta altzairuzko eraikuntza, inprimatutako materialak eta soka.
245 x 220 x 147 cm.

NO ME TENDRÁS POR INOCENTE, 2016-20. Egur eta altzairuzko eraikuntza, inprimatutako materialak eta soka. 245 x 220 x 147 cm. (xehetasuna)

NO ME TENDRÁS POR INOCENTE, 2016-20.
Egur eta altzairuzko eraikuntza, inprimatutako materialak eta soka.
245 x 220 x 147 cm.

Ikuspegi orokorra

ESOS DESECHOS, 2018-20. Markoztatutako argazkia, zatika pintatutako egurra, paper gaineko inprimaketa eta altzairu galvanizatua. 210 x 47 x 10 cm.

ESOS DESECHOS, 2018-20. Markoztatutako argazkia, zatika pintatutako egurra, paper gaineko inprimaketa eta altzairu galvanizatua. 210 x 47 x 10 cm. (xehetasunak)

BASTARDO BLANCO 1, 2020. Igeltsua eta iztukatutako egurra, aluminioa. 57 x 65 x 21 cm.

BASTARDO BLANCO 3, 2020. Igeltsua eta iztukatutako egurra, aluminioa. 68 x 60 x 17 cm.

Ikuspegi orokorra

MONUMENTO, 2020. Iztukatutako plastikoa eta egurra, zatika pintatutako astoak eta aluminiozko xafla eta oihal beltza. 220 x 139 x 95 cm.

MONUMENTO, 2020.
Iztukatutako plastikoa eta egurra, zatika pintatutako astoak eta aluminiozko xafla eta oihal beltza. 220 x 139 x 95 cm. (xehetasunak)

MONUMENTO, 2020.
Iztukatutako plastikoa eta egurra, zatika pintatutako astoak eta aluminiozko xafla eta oihal beltza. 220 x 139 x 95 cm.

Ikuspegi orokorra

DE LOS UDAM (LO QUE EL SIGNO ESCONDE), 2010-21.
Zatika pintatutako egurrezko eraikuntza.
163 x 91 x 100 cm.

DE LOS UDAM (LO QUE EL SIGNO ESCONDE), 2010-21.
Zatika pintatutako egurrezko eraikuntza.
163 x 91 x 100 cm.

ME MUERO DE RISA ME PARTO DE PENA, 2020. Olio pintura eta collagea inprimatutako paper gainean. 153 x 111 cm. bakoitza.

ME MUERO
DE RISA

DE PENA
ME PARTO


ME PARTO
ME MUERO

ME PARTO
DE RISA

ME MUERO DE RISA ME PARTO DE PENA (1, 2, 3, 4 eta 5 jarraian), 2020.
Olio pintura eta collagea inprimatutako paper gainean.
153 x 111 cm. bakoitza

ME MUERO DE RISA ME PARTO DE PENA, 2020. Olio pintura eta collagea inprimatutako paper gainean. 153 x 111 cm. bakoitza

Ikuspegi orokorra



ARDOR Y MANIA, 2010-21. Egurrezko eraikuntza, inprimatutako altzairua, goma eta paper gaineko olio pintura. 116 x 100 x 12 cm.

FLUJOS, MUTACIONES, FILIACIONES, 2015.
Inprimatutako paper eta plastikozko collagea, zatika pintatutako argazki gainean.
70 x 50 cm.

BASTARDO BLANCO 4, 2020.
Igeltsua eta iztukatutako egurra, aluminioa.
75 x 57 x 17 cm.

Ikuspegi orokorra

BASTARDO BLANCO 2, 2020. Igeltsua eta iztukatutako egurra, aluminioa. 59 x 75 x 27 cm.

BASTARDO BLANCO 2, 2020. Igeltsua eta iztukatutako egurra, aluminioa. 59 x 75 x 27 cm.

ALAS POOR ANDRE, 2010-20.
Egur eta altzairuzko eraikuntza, zatika pintatua eta inprimatua.
240 x 250 x 250 cm.

Associated P
eacher who died in 1999, and
an Theater for "Hamlet."
e another look at some of these
lications — this university needs
ake-up," Ms. Poehler said.

ALAS POOR ANDRE, 2010-20.
Egur eta altzairuzko eraikuntza, zatika pintatua eta inprimatua.
240 x 250 x 250 cm. (xehetasuna)

ALAS POOR ANDRE, 2010-20. Egur eta altzairuzko eraikuntza, zatika pintatua eta inprimatua. 240 x 250 x 250 cm.

ALAS POOR ANDRE, 2010-20. Egur eta altzairuzko eraikuntza, zatika pintatua eta inprimatua. 240 x 250 x 250 cm.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725